



**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2003KO EKAINA)**

AZTERKETARIA

LEHEN DEITURA

BIGARREN DEITURA

IZENA

NAN

EGUNA: 2003ko ekainaren 4a



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2003KO EKAINA)

1. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Beheko testuan hainbat hutsune agertzen dira. Aukeratu hutsune bakoitzari dagokion hitzik aproposena, eta testuaren ondorengo "ERANTZUNEN TAULAN" markatu zure hautuak. Erantzuten hasi aurretik testuaren irakurketa arina egitea komeni da.

JEAN PIAGET: *Adimenaren sorrera haurraren*

HITZAURREA

Jean Piagetek lauogei urte bete zituenean, Genevako Unibertsitateak omenaldi bat egin zion.1..... pertsonaz eta obraz hitz egiteko, Paul Fraisse,2..... adiskidea, aukeratu zuten. Fraisse bere kezka eta lotsa aitortuz hasi zen Piageten aurkezpena egiten. Ez zuen bere burua gaitua ikusten egiteko hori behar bezala betetzeko. Fraissek zioenez, zeregin horri uko ez egiteko arrazoia izan zen maisuaren adiskidea izatea eta hura estimu handian edukitzea. Bada, Fraissek, zena zela eta zekiena3....., hori baldin bazioen, zer ez ote nuke esan beharko nik? Baina, beldurra alde batera utzita, lanari ekin behar, "agindua4....." baita, esaera zaharrak dioenez. Barkatuko ahal dit irakurleak nire5.....

1. a) bere b) haren c) beren d) bera	2. a) sarituaren b) omenduaren c) frantsesaren d) artistaren	3. a) zekienez b) zekielako c) baitzekien d) zekiela	4. a) agindu b) zor c) lege d) arau	5. a) ausarta b) beldurra c) ausardia d) lotsa
---	---	---	--	---

Eta hasteko, lehen hurbiltze moduan, xehetasun batzuk eman nahi dizkiot irakurleari hitzaurre hau daraman liburuaren eta autorearen6..... : liburu noiz jaio zen, zein den haren lekua Piageten obraren barnean, eta Piaget bera nor zen liburu hau argitaratu zuenean. Gero, era sistematikoagoan egingo dugu autorearen eta liburuaren aurkezpena.

Orain euskaraz ere irakurtzerik izango duzun liburu hau 1936. urtekoa da. Jatorrizko lana frantsesez atera zen, Piaget frantsesez mintzo den Suitzako eskualdean, *Suisse romande* delakoan, jaioa baitzen. Oraindik gaztea zen Piaget, berrogei urte baizik ez zituen; hala ere, bere sorterrian eta Frantzian7..... handik kanpo ere ezaguna zen ordurako. Bost liburu zituen ordurako argitara emanak haurraren psikologiaz, eta haien nazioarteko oihartzuna ia berehalakoa izan zen. Aurrenekoa, *Le langage et la pensée chez l'enfant* (Mintzaira eta pentsamendua haurraren), 1923an argitaratu zena, ingelesez ere irakur zitekeen 1926an, eta gaztelaniaz eta polonieraz ere bai 1929an. Azkenekoa, *Le jugement moral chez l'enfant* (*Judizio moral haurraren*), frantsesez atera zen urte berean, 1932an, itzuli zuten ingelesera. Beste hiruren8..... itzulpena 1930 urtekoa edo lehenagokoa da.

6. a) ganean b) buruz c) gainetik d) gaindi	7. a) izan ezik b) ezpada c) aitzitik d) ez ezik	8. a) ingles b) ingelera c) ingeles d) ingleserazko
--	---	--

Liburu horiek jendearen oniritzia jaso zuten,9..... oniritzia, autoreak bere *Autobiografian* (Piaget, 1952) aitortu zuenez. Arrakastaren ondorioetako bat izan zen munduko herrialde askotatik gonbidatu zutela bere ideiak aurkeztu eta eztabaidatzera. Horien artean, honako hauek aipatzen ditu10..... berak: Frantzia, Belgika,11.....,



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2003KO EKAINA)

Ingalaterra, Eskozia, Ameriketako Estatu Batuak, Espainia, Polonia, etab. Mila bederatziehun eta hogeita zortzian, adibidez, hitzaldi bat eman zuten Frantziako Filosofi Elkartearen egoitzan. "Les trois systèmes de la pensée de l'enfant" ("Haurren pentsamoldearen hiru sistemak") izan zen hitzaldiaren izenburua. Aurkezlea Henry Delacroix izan zen, urte batzuk lehenago Piageten irakasle izana Sorbonan; Delacroix psikologoak ezin12..... agertu zuen bere kidearen aurreneko lanei buruz zuen iritzia: "Piaget jaunak badu berezitasun bat oso bakana dena eta psikologoaren artean lehen mailara jasotzen duena. Berezitasun hori da filosofoa ere badela. Badaki problemak jartzen, baita lortzen dituen askabide edo soluzioen balioa neurtzen ere. Gaurko filosofiaz eta bereziki gaurko epistemologiaz dakiena13..... ematen dio bidea haurren adimena giza gogoaren bilakaera edo eboluzio orokorraren argitan interpretatzeko" (ik. Ducret, 1990, 11. or.).

9. a) ustezko b) ustekabeko c) ustegabeko d) usteko	10. a) Piaget b) Piageten c) Piagetek d) Piagetak	11. a) Herribehereak b) Herribeherak c) Herriberak d) Herbehereak	12. a) argiago b) hobe c) argiro d) argiki	13. a) jakitea b) dakielako c) jakiteak d) dakiela
--	--	--	---	---

Liburu honek argia ikusi zuenean, Piaget ezaguna zela14..... duten beste bi gertakari ere aipatu nahi ditut. Lehenbizikoa 1929. urtekoa da: urte horretan, "Bureau International de L'Education" delakoaren15..... izendatu zuten. Erakunde hori gobernuartekoa zen, eta batez ere horregatik hartu zuen bere16..... erantzukizun hori, ikerketari denbora asko kenduko ziola jakin arren:17..... ezin hobea zen erakunde barneko gobernuak bultzatzeko pedagogi metodoak hobetzera, eta horretaz baliatzea erabaki zuen. Bigarren gertakaria Piagetek hartu zuen lehenbiziko *honoris causa* doktoretzari dagokio: ohore hori Harvardeko Unibertsitateak egin zion 1936an.

14. a) gezurtatzen b) probatzen c) irakasten d) frogatzen	15. a) zuzendari b) zuzendaria c) arduraduna d) arduratsu	16. a) kasa b) lepotik c) gain d) gaintetik	17. a) probetxu b) abagadune c) okasino d) abagune
--	--	--	---

Honaino Piageti buruz aurreratu nahi nuena. Liburuaz, bizpahiru gauza aipatu18..... ez dut egingo oraingoz. Batetik, eduki edo aztergaiak eta metodoak desberdina egiten dute aurreko bost liburuetatik. Bi urte bete arteko haurra du19..... liburu honek; aurrekoek, hiru urtetik zazpirainokoa. Hemen, haurrak zer egiten duen begiratzen da; han, zer esaten duen. Bestetik, liburu hau Piagetek bizitzako lehen bi20..... haurrari eskaini zion trilogiaren lehenbiziko obra da, eta jokabide adimentsua sortzeaz ari da batik bat. Azkenik, liburu honetan, trilogia osatzen duten beste bietan bezala, bere seme-alaben erreakzioak aztertzen ditu Piagetek.

18. a) bakarrik b) soilik c) besterik d) beste	19. a) aztergai b) aztergaia c) aztergai gisa d) aztergaian	20. a) urteko b) urtetako c) urteetako d) urteptako
---	--	--



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2003KO EKAINA)

ERANTZUNEN TAULA

1.	A	B	C	D
2.	A	B	C	D
3.	A	B	C	D
4.	A	B	C	D
5.	A	B	C	D

6.	A	B	C	D
7.	A	B	C	D
8.	A	B	C	D
9.	A	B	C	D
10.	A	B	C	D

11.	A	B	C	D
12.	A	B	C	D
13.	A	B	C	D
14.	A	B	C	D
15.	A	B	C	D

16.	A	B	C	D
17.	A	B	C	D
18.	A	B	C	D
19.	A	B	C	D
20.	A	B	C	D



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2003KO EKAINA)

2. ARIKETA: IDAZLANA

Egingo duzun idazlanak 250-300 hitz izan behar du. Mesedez, boligrafoz idatzi eta gogoan izan azterketa egiteko duzun denbora. Amaitzean, eman azterketa osoa aztertzailei. Idazlana egiteko A edo B aukeratu eta aukera horietako bat garatzeko, azpian dituzun gaietako bat aukeratu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan).

A) **Unibertsitateko** lankide batek laguntza eskatu dizu. Irakasle talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, baina artikulua faltan egoten dira maiz. Hori dela eta, zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulua batean. Gogoan izan ikasleentzat ari zarela idazten, zabalkunde lanean alegia (ez testu akademikoa prestatzen). Hala nahi izanez gero, zeure iritzia ere plazara dezakezu, aukeratu duzun gaiaren inguruan.

B) **Eskolako apunteak** prestatzen ari zara eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, edo gai horren azpiko gai zehatzen bat polikiago aztertuko duzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIAK	
Arkitektura	Arkitektura modernoa	Arkitektura eta gainerako arteak
Artea	Ordenadore bidezko irudigintza	Zinemagintza arte gisa
Biologia	Klonazioa	Fotosintesia
Ekonomia	Nazioarteko merkatu-harremanak	Hirugarren Munduaren kanpo-zorra
Filologia	Chomsky eta gramatika sortzailea	Itzulpen-lana: 'traduttore traditore'
Filosofia	Erlatibismoaren inguruko eztabaida	Marx
Fisika	Atomoaren egitura	Grabazio unibertsalaren legea
Geografia eta Historia	Nafarroako erresuma	Industri iraultza
Geologia	Tolesak	Lurpeko urak
Gizarte zientziak	Iritzi publikoa	Parte-hartze politikoa eta hauteskundeak
Heziketa fisikoa	Kirola gizarte eta kultur fenomeno gisa	Heziketa fisikoa irakasteko metodoak
Informatika	Adimen artifiziala	Informatikaren sorrera eta garapena
Informazioa	Adierazpen-askatasuna egungo gizartean	Publizitatearen eragina
Kimika	Atomoen egitura elektronikoa	Atomoen egitura elektronikoa
Matematika	Segidak eta serieak	Zenbaki errealak
Osasuna	Elikagaien higieena	HIESA
Pedagogia	Didaktika kontzeptua	Hezkuntzaren erreforma eta eskola
Psikologia	Irakaskuntzari buruzko teoriak	Adimena neurtzeko bideak
Teknologia	Komunikazio analogikoak eta digitalak	Materiaren egoera fisikoak
Zuzenbidea	Oinordekotza	Hitzarmen kolektiboak



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea
EUSKARA ZERBITZUA

**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2003KO EKAINA)**

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):



**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2003KO EKAINA)**



**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2003KO EKAINA)**



**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2003KO EKAINA)**

EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA

Zuzenketa-orria

Irakurmena (markatu biribil batekin erantzun zuzenen kopurua)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Idazlana (markatu emaitza biribil batekin)

GAI	EZ GAI
-----	--------

Oharrak

Zuzentzailea

Berraztertzailea